Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

2152

EBAZPENA, 2010eko martxoaren 16koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Donostia-San Sebastiángo 2 zenbakiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (1036/2009 zenbakiko prozedura laburtukoa) interesa izan lezaketenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (1036/2009 zenbakiko prozedura laburtukoa) aurkeztu da Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2009ko irailaren 23ko Ebazpenaren kontra. Ebazpen honek, 2008ko otsailaren 8ko (martxoaren 5eko EHAA, 46. zk.) Ebazpenaren bitartez deitutako Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ikerketa Kriminaleko Ofizialondo Kategorian sartzeko hautaketa prozeduraren Epaimahai Kalifikatzailearen 2009ko apirilaren 6ko Akordioaren kontra jarritako gora jotzeko errekurtsoa ezetsi egiten du. Eta, Donostia-San Sebastiángo 2 zenbakiko Administrazio Auzietako Epaitegiak jatorrizko administrazio-espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzi Eskumenari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, ondorengo hau jakinarazten dut: aipatutako prozeduran interesatuta dauden guztiak euren interes legitimoen defentsan azal daitezela, egoki baderitzote, bederatzi eguneko epean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Arkaute, 2010eko martxoaren 16a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
JUAN DE DIOS URIARTE ARCINIEGA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

2152

RESOLUCIÓN de 16 de marzo de 2010, del Director de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se emplaza a los posibles interesados en el recurso contencioso-administrativo al procedimiento abreviado 1036/2009, que se sigue en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Donostia-San Sebastián.

Habiéndose interpuesto el recurso contencioso-administrativo procedimiento abreviado 1036/2009 identificado en el encabezamiento, contra la Resolución de 23 de septiembre de 2009 del Director de la Academia de Policía del País Vasco por la que se desestima el recurso de alzada interpuesto frente al Acuerdo de 6 de abril del Tribunal Calificador del proceso selectivo para ascenso a la categoría de Suboficial de Investigación Criminal de la escala de Inspección de la Ertzaintza, convocado por Resolución de 8 de febrero de 2008 (BOPV n.º 46, de 5 de marzo), y habiéndose solicitado por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Donostia-San Sebastián la remisión del expediente administrativo original, de conformidad con lo previsto en el artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, por la presente se emplaza a todos aquellos que puedan ostentar la condición de interesados en el procedimiento de referencia para que, en el plazo de nueve días, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan en el procedimiento citado en defensa de sus legítimos intereses, si así lo considerasen oportuno.

En Arkaute, a 16 de marzo de 2010.

El Director de la Academia de Policía del País Vasco,
JUAN DE DIOS URIARTE ARCINIEGA.